

Michel Foucault: boterearen mekanismoak eta subjektibazioak hezkuntzan eta poliziagintzan

*Michel Foucault: mechanisms and subjectivations of power
in education and policing*

Maria Sarasola-Fernández^{1*}, Jon Fernández-Iriondo^{2**}

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

LABURPENA: Postestrukturalismoak eskola edota polizia bezalako egungo instituzioen garapen eta funtzio-namendua ulertzeko baliabideak eskaintzen ditu. Alderantziz ere, instituzio horiek oso lagungarriak dira korronte filosofiko honen kontzeptuak ulertzeko. Bereziki, Foucaulten pentsamenduak eskaintako tresna analitikoetan sakondu eta berauek aplikatzen ditu artikuluko honek bi noranzkoko harreman horretan. Horretarako, estrukuralismotik postestrukturalismorako ibilbidea jasotzen du, baita Foucaulten pentsamenduaren ardatz den boterearen kontzeptuaren bilakaera ere. Ondoren, Foucault-en botere-mekanismo nagusietan sakontzen du, hots, subiranotasun, diziplina eta segurtasunean. Jarraian, botereak ezagutzaren, egiaren eta subjektibitatearen eraketan duen eragina aztertzen du, landutako kontzeptuek eskolaren eta poliziaren instituzioetan duten aplikagarritasuna arakatuz amaitzeko.

Hitz gakoak: Foucault, boterea, subjektibazioa, hezkuntza, eskola, polizia.

ABSTRACT: Poststructuralism provides resources for understanding the development and functioning of institutions such as the school and the police. Conversely, these institutions also contribute greatly to the understanding of the concepts of this philosophical current. More concretely, this article applies the analytical tools offered by Foucault's thought to this bidirectional relationship. For that purpose, it first traces the evolution from structuralism to poststructuralism and examines the development of the concept of power, which is central to Foucault's thinking. It then delves into Foucault's main mechanisms of power: sovereignty, discipline, and security. Finally, after analysing the influence of power on the construction of knowledge, truth, and subjectivity, the article applies these concepts to the institutions of the school and the police.

Keywords: Foucault, power, subjectivation, education, school, police.

¹ Egile honek doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktorego aurreko programako laguntza jasotzen du 2023-2024 deialdian eskuratu zuena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskutik.

² FPU 2022 deialdiaren onuraduna izanik, egile honek Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren finantzaketa jasotzen du. Halaber, NOR Ikerketa Taldeko kide gisa, egile honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza jaso du (IT-1438-22).

* **Harremanetan jartzeko/Correspondence to:** Maria Sarasola-Fernández. Parte Hartuz Ikerketa Taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) – maria.sarasola@ehu.eus – https://orcid.org/0009-0006-5657-1787

** **Harremanetan jartzeko/Correspondence to:** Jon Fernández-Iriondo. NOR Ikerketa Taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) – jon.fernandez@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-4876-6828

Nola aipatu/How to cite: Sarasola-Fernández, Maria; Fernández-Iriondo, Jon (2025). «Michel Foucault: boterearen mekanismoak eta subjektibazioak hezkuntzan eta poliziagintzan»; *Inguruak*, 77, 24-51. (https://doi.org/10.18543/inguruak.273).

Jasoa/Received: 29 enero, 2025; Onartua/Final version: 11 septiembre, 2025.

ISSN 0214-7912 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririk 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

1. SARRERA

Artikulu honen helburua Michel Foucaulten pentsamoldeari buruzko zenbait zertzelada marraztea eta hezkuntzaren eta poliziagintzaren arloetara aplikatzea da, ekarpen xume bat egite aldera pentsamolde postestrukturalistaren euskaratzeari. Zehazki, artikulu honek pentsamolde foucaultarraren ertz hauek jorratzen ditu: estrukturalismotik postestrukturalismorako jauzia; boterearen ikusmolde foucaultarra, ikusmolde tradizionalarekin kontrajarrita; boterearen mekanismoak (subiranotasuna, diziplina eta segurtasuna) eta haien funtzionamendua, eta boterearen eragina ezagutzaren, egiaren eta subjektibitateen eraketan. Ondoren, Foucaulten tresna kontzeptualak erabili ditugu hezkuntzaren eta poliziagintzaren alorretan, hipotesia izanik pentsamolde foucaultarraren eta instituzio horien arteko harremana bi noranzkoko dela: alegia, Foucault ezinbestekoa dela eskolaren eta poliziaren funtzionamendua behar bezala ulertzeko, eta eskolak eta poliziak oso adibide argigarriak direla pentsalari horren kontzeptuak ulertzeko. Artikuluan zehar, pentsamolde foucaultarra beste autore batzuekin ere lotu dugu, betiere pentsalari frantziarrak garatutako ekarpenen eragina nabarmenduz.

2. ESTRUKTURALISMOTIK POSTESTRUKTURALISMORA

«Postestrukturalismo»aren terminoa literatura akademikoan oso hedatuta dago 1960ko hamarkadaren amaieran Frantzian sortutako korrante filosoko bat izendatzeko. Postestrukturalismoaren lehen belaunaldiko pentsalariak, baina, Jacques Derrida-k eta Michel Foucaultek hain zuzen, ez zuten termino hori erabili euren lanari erreferentzia egiteko. Horrenbestez, izendapen hori eta autoreen sailkapen edo multzokatze hori «atzera begirako eraikuntza epistemologikoa» da (Dillet 2017, 517). Batzuetan nahasmena eragin badezake ere³, eraikuntza epistemologiko hori erabilgarria da pentsamenduaren korrante hura historian kokatzeko. Postestrukturalismoaren hainbat ideia nagusi kontsentsu akademikoaren parte baldin baziren jada, post-truth politics delakoaren garaian murgilduta gauden honetan, teoria sozial honek are arreta handiagoa erakarri du beregana (*idem*, 518).

Postestrukturalismoaren muina eta Foucaulten pentsamoldea ulertzeko, lehendabizi, «estrukturalismoa» azaldu beharra dago. Zentzu zabalean eragilean portaera sozial eta politikoa azaltzeko egituren rola nabarmentzen duten hurbilkerentzako aterkia bada ere, hemen pentsamendu-korrante zehatzago batez ari gara, alegia, 1950-60ko hamarkadetan Europa frankofonoan garatutako teoria batez. Jatorriz, estrukturalismoa hizkuntzalaritzan garatu zen Ferdinand de Saussure suitzarraren eskutik. Ondoren, Claude Lévi-Strauss-ek antropologiaren arloan aplikatu zituen ekarpen horiek, paralelismoak aurkituz

³ Esate baterako, Harcourt-ek (2007, 21) ez du Jacques Derrida postestrukturalistatzat jotzen, «dekonstrukzionista»tzat baizik. Agger-ek (1991, 112), bere aldetik, postestrukturalistatzat jotzen du Derrida, eta Foucault «postmodernista»tzat, postestrukturalismoa ezagutzaren eta hizkuntzaren teoria gisa definitzen baitu, eta postmodernismoa gizartearen, kulturaren eta historiaren teoria gisa.

hizkuntza-sistemen eta ahaidetasun-sistemen artean, eta Louis Althusser-ek eta Nicos Poulantzas-ek marxismoarekin uztartu zuten estrukturalismoa (Ritzer eta Stepnisky 2018, 626-629). Ezberdintasunak ezberdintasun, honela laburbil ditzakegu estrukturalismoaren oinarriak: 1) ikerketa-agenda estrukturalistak fenomeno inkontzienteetan jartzen du arreta, eta ez fenomeno kontzienteetan; 2) «adierazleen» (terminoen) eta «adierazien» (esanahien) arteko harremana ez da erreferentziala, erlazionala baizik⁴; 3) antzekotasunezko eta ezberdintasunezko harremanek sistema edo egitura bat eratzen dute, eta 4) egiturazko analisiak lagun dezake lege orokor eta unibertsalak hautematen (Lévi-Strauss 1967, 31; hemen aipatuta: Harcourt 2007, 4).

Harcourt-en arabera (2007), postestrukturalismoa estrukturalismoaren lehenengo, bigarren eta hirugarren oinarrietatik abiatzen da, baita laugarren oinarriaren ukapenetik ere. Postestrukturalismoaren arabera, esanahien egiturak ez dira unibertsalak, ez dituztelako gizakioi buruzko egia ontologikoak islatzen. Ildo horretako pentsalariak egituretako hut-sune eta anbigutasunetan zentratzen dira hain zuzen, hor bilatzeko esanahia. Postestrukturalismoak teorizatzeko estilo berezia dakar berekin, zalantzan jartzen baititu sistemen, unitatearen eta itxitasunaren nozioak. Haien orde, kontingentzia, irekitasuna eta etenaldia azpimarratzen ditu (Wenman 2017, 126). Gainera, postestrukturalismoa ilustraziotik datozen zenbait ideien edota narratiben —alegia, unibertsaltasunaren, kontsentsuaren eraketaren eta arrazionalitatearen— ukapenean ere oinarritzen da⁵ (Hanssen 2004, 280). Horren orde, errealitatea modu zatitu, biderkatu, askotariko, eta kulturalki espezifikoa ikusten du (Khan eta MacEahen 2021, 4). Bukatzeko, postestrukturalismoaren ezaugarri nagusietako bat «itaunketa nekaezina»ren estrategia da («strategy of tenacious questioning») (Wenman 2017, 126), honelako galderak mahaigaineratzen ditu eta: nola egiten ditugu hautu etikoak? Nola mugitzen gara zalantzatik ziurtasunera? Nola zedarritzen dugu esanahia? Nola heltzen gara egia dela pentsatzen dugun hori sinestera? Nola heltzen gara, adibidez, zigorra modu legitimoan ikustera, zigortutako pertsonaren hobekuntza edo aurrerapena eragingo duelakoan? Zer instituzio eta praktikak dute eragina prozesu horretan? Nola eragiten dute praktika diziplinarioek gure sinesmenetan? Eta zeren edo noren kaltetan? (Harcourt 2007).

Michel Foucaultek, Parisko Goi-Mailako Arauzko Eskolan psikologian eta filosofian lizentziatuak eta Clermont-Ferrand Unibertsitatean doktoratuak, horrelako galderak jorratu zituen, eromenaren historia, medikuntza klinikoaren sorrera, zigor-sistemak eta espetxea, edota sexualitatea aztertzeako orduan, besteak beste. Poitiersekoa postestrukturalismoaren lehen belaunaldiko pentsalarietako bat izanik, jarraian datozen atalak haren pentsamoldeari eskainiko dizkiogu.

⁴ Esate baterako, «hotz» hitzaren esanahia ez da berezkoa; aitzitik, haren esanahia «bero» hitzarekiko aurkakotasun binarioaren bidez sortzen da (Ritzer eta Stepnisky, 2018: 627).

⁵ Ilustrazioaren ukapen postestrukturalista hori erlatibizatu beharra dago. Alemaniako eta Frantziako ilustrazioak ezaugarri eta ondorio ezberdinak izan zituen, eta Foucault-ek ilustrazio frantziarrari zuzendu zion bere kritika (Hanssen, 2004: 298-299).

3. BOTEREAREN INGURUKO IKUSMOLDEAK: MAKIAVELO-TIK FOUCAULTERA

Boterea politika-zientzien erdigunean egon da historikoki. Nicolás Makiavelo-renekarpetatik abiatuz, politika boterea lortzeko borroken inguruko ikerketa da, boterea esku-ratu, mantendu eta galtzeko bitartekoen azterketa (Maquiavelo, 2014). Hala, menperakun-tzan oinarritutako botere-harremanak dira politikaren funtsa, botere-harreman horiek existituko ez balira, gobernatzaile eta gobernatuaren arteko bereizketa desagertuko litza-tekeelako. Makiaveloren arabera, gobernatuek ez dute botere-egarririk, gutxieneko segur-tasun eta askatasun beharra baizik. Hori lortzeko, ordena ezarriko duen gobernatzaile ba-ten beharra sortuko da. Hala, gobernatuak gobernatzailearen beharra du, eta alderantziz, politika deritzogun botere-harremana eratuz (Schenioni 2007, 217).

Botere-harremanetan sakontzeko, Thomas Hobbes-en ekarpenari erreparatuko diogu. Hobbesen arabera (2019), gizakiak naturaz berdinak eta askeak gara eta bakoitzak bere naturazko berdintasun eta askatasun hori asetzeko desirak elkarren aurkako gerra eragi-ten du. Hobbesentzat, beraz, boterea hiltzeko gaitasuna da; pertsona bakoitzak berez duen gaitasuna. Ondorioz, ziurgabetasunak eta elkarrekiko beldurrak gailendutako mesfidan-tzazko testuingurua nagusituko da. Tentsio honi aurre egiteko, hirugarren bati (Leviatan) bizitza eta harreman sozialak erregulatzeko zilegitasuna, legea eta boterea emango diz-kiote pertsonak. Beraz, bakoitzak duen botereari uko egitea adosten dute herritarrek, be-rau gobernatzaileari transferituz, bizitza sozialaren mesedetan.

Hala, aipatutako bi autoreek boterea zer den azaltzen dute. Laburki esanda, Makiavelo-k gobernatzaile-gobernatu harremanean oinarritzen den zerbait dela argudiatzen du. Hob-besen aburuz, berriz, hiltzeko gaitasuna da boterea, gizabanakoak berez duena eta bizitza soziala bermatzeko gobernatzaileari transferitzen diona. Baina nola egikaritzen da gainera-koek gobernatzaileari transferitutako boterea? Bestela esanda, zerk egiten du norbait gober-natzaile? Bada, Carl Schmitt (2009) jarraituz, salbuespen egoera agintzeko ahalmena izateak bilakatuko du pertsona gobernatzaile. Hau da, indarrean dagoen ordena juridikoa bertan behera uzteko ahalmen mugagabeari egiten dio erreferentzia botereak, ordena eta segur-tasun publikoa zer diren, noiz dauden arriskuan eta noiz urratu diren definitzeko ahalme-nari. Legeak ezartzen duen horretatik haratago erabakiak hartzeko eskumena du goberna-tzaileak eta, horretarako, legea bera bertan behera uztekoa, salbuespen egoera aginduz.

Botere-harremanetan gakoa den beste alderdi batean sakontzen dute ondorengo bi auto-reek: zilegitasunean. Max Weber pentsalariari helduz, boterea besteen onarpenarekin edo gabe norbere borondatea ezartzeari dagokio. Dominazioa Weberentzat botere-mota bat da legitimitatez egikaritzen dena (Montbrun 2010, 371). Hala, orain arte aztertutako bote-rearen adierak botere-harremanen aldebakarreko ikuspegia dute, zeinetan era batean edo bestean, boterea duenak eta hari obeditzen dionak osatzen duten botere-harremana, beti norantza berean.

Hannah Arendt-ek, berriz, boterea talde batek izan dezakeen kalitatea dela argudiatzen du, helburu komun bat lortzeko pertsona multzo batek egindako akordiotik eratortzen dena, taldea desagiten denean, boterea ere desagertzen delarik (Arendt 2023, 108). Hortaz, boterea pertsonen arteko harreman testuinguruan sortzen da soilik eta gobernatzailearen ezarpenetik haratago, gobernatuaren onarpena ere beharrezkoa da botereaz hitz egiteko. Arendten ikuspegitik, pertsonak aitortutako zilegitasunak ematen du boterea, eta zilegitasun hori desagertzen denean desagertzen da boterea ere. Boteregabetze horren aurrean agertzen da indarkeria eta, beraz, indarkeria eta boterea aurkakotzat ditu Arendtek.

Autore ezberdinen definizioen analisia eginez, Alberto Montbrun-ek (2010, 370-371) honako ezaugarriak identifikatzen ditu botere-harremanetan: 1) boterea beti fenomeno erlazionala da, pertsonen arteko harremana; 2) botere-harremana asimetrikoa da, hau da, pertsona bat dago agintzen duena eta beste bat obeditu egiten duena eta, beraz, harreman mota honek aldebakarreko norantza du; 3) bizitza sozialean boterea ulertzen da norbere borondatea besteengan inposatzeko aukera moduan, beste pertsonak bestelako baldintzetan egingo ez luketen zerbait egitera bultzatzeko edo behartzeko bitarteko zehatzen bat erabiliz; eta 4) obedientziak orokorrean ñabardurak ditu, zilegitasunari, egokitasunari, mehatxuari edota behartua izateari lotuta egon baitaiteke.

Hori guztia kontutan izanik, Foucaulten ikuspegira itzuliko gara. Boterea haren lanaren muinean dagoen fenomeno da eta honela ulertzen du: pertsona batzuk besteen jardun-eremu posiblea egituratzeko gaitasuna (Foucault 1988, 17). Hala, botere-harremanek sustatu, baztertu, erraztu, zaildu, zabaldu, mugatu edota ekidin egiten dute (*idem*, 15).

Kontzeptu horren ikuspuntu foucaultarra honako ezaugarriak osatzen dute: batetik, boterea ez da gizakiok, talde sozialek edo instituzioek eduki, eskuratu, galdu edo partekatu dezaketen ezaugarri edo ahalmen bat (Rae 2020, 104-105). Bigarrenik, ez da soilik negatiboa, errepresiboa eta debekatzaila; hala balitz, jendarteak ez luke inoiz zilegiztatuko. Aitzitik, botereak badauka alde produktiboa ere, asmakizunak, plazera, ezagutza, diskurtsoa eta bestelakoak ekoitzi edo eragiten ditu eta (Allen 2002, 133-134). Hirugarrenik, fenomeno erlazionala da, eta harreman mota guztietan agertzen da boterea: beraz, botere-harremanak ez daude ekoizpen-, ezagutza- edota sexu-harremanetatik kanpo (Rae 2020, 104-105). Laugarrenik, ez da modu hierarkiko eta bertikalean ulertu behar, behetik datorren zerbait delako eta, hortaz, agintari-agindu dinamika dikotomikoak ez du ondo islatzen botere-harremanen logika. Klase menperatzaileen esku dagoen pribilegio bat baino, posizio estrategikoen efektu moduan ulertzen du Foucaultek boterea (*ibid.*). Dena den, ohikoa da estatu-aparatu, arau eta gizarte-hegemoniatan gorpuztea eta, modu sinple eta biolentonean agertzen denean, azpiratze-harremanez hitz egin daiteke (Foucault 1980, 115; hemen aipatuta: Rae 2020, 117). Azkenik, botere-harremanek ez diote askatasunari uko egiten eta ez daude beti kontsentsuan oinarrituta, hala izan daitekeen arren. Izan ere, boterea gauzatu ahal izateko subjektuak jokabide posible ezberdinen artean aukeratzeko askatasuna izan behar du (Foucault 1988, 15).

Ekintzetan ekitea da boterea, jokabideak gidatzea (*idem*, 15). Finean, botere-harremanak norberak besteengan eragina izateko eta besteek norberarengan eragiteko gaitasuna dira, zenbaiten ekintzek beste batzuenak moldatzeko moduak (Deleuze 2014; hemen aipatuta: Jiménez Villar 2020, 305).

4. BOTEREAREN MEKANISMOAK: SUBIRANOTASUNA, DIZIPLINA ETA SEGURTASUNA

Foucaulten boterearen inguruko irudi orokorra osatu ondoren, botere-mekanismoetan saskonduko dugu, zehazki, subiranotasun-, diziplina- eta segurtasun-mekanismoetan. Baina horretan sartu aurretik, botere-erregimenak eta mekanismoak definitzea eta haien artean bereiztea garrantzitsua da. Botere-erregimenak ez dira egiturak, testuinguru zehatz bateko egoera konplexua osatzen duten mekanismo eta prozedura-multzoak baizik. Hau da, boterea egikaritzeko arau, diskurtso eta praktikez osatutako eremuari egiten die erreferentzia, boterea nola antolatzen eta egikaritzen den determinatzen dutenak. Mekanismoak, aldiz, zehatzagoak, boterea egikaritzeko prozesu eta teknikak dira. Mekanismo hauek boterea bera ziurtatzeko funtzioa dute eta ezin dira dinamika horietan gertatzen diren harremanetatik bereizi (Foucault 2006).

Botere-erregimenen artean hiru mekanismo nagusi bereizten ditu Foucaultek: mekanismo legala, diziplina eta segurtasuna. Lehen, mekanismo legala, botere subiranoarekin lotzen du. Beste biak, diziplina eta segurtasuna, bioboterearen markoan kokatu eta botere diziplinarioarekin eta gobernuarekin lotzen ditu, hurrenez hurren. Mekanismo hauek ez dira historian zehar era isolatuan, bata bestea ordezkatzuz, ageri. Aitzitik, aldatzen joan dena mekanismo hauen arteko korrelazioa izan da, hau da, garai bakoitzean gailendu dena (*idem*, 23). Definitu ditzagun kontzeptuak banan-banan.

Hasteko, botere subiranoa, mekanismo juridikoen bitartez egikaritzen da. Legeak berretsi eta lege horiek hautsiko dituztenentzako zigorrak zehazten ditu. Testuinguru horretan, legeak debekatua dagoena zer den ezartzen du eta, beraz, zehaztuta ez dagoena da baimenduta dagoena (*idem*, 20).

Biobotereari dagokionez, honetan desberdintzen da botere subiranotik: bizitzak kudeatzeko helburua duen botere-mota da, gorputz indibidualen diziplinatzea eta populazioaren kontrol erregulatzailea oinarri dituen, hau da, populazioen biopolitika (Jiménez Villar 2020, 307).

Diziplinak egin behar dena arautzen du isolatutako espazio zehatz batean. Errudunari, zehatzatzeari, diagnostikoari eta banakoen eraldaketari lotutako teknika multzoa barnebiltzen ditu (Foucault 2006, 66-68). Hala, zuzenketa efektua bilatzen du diziplinak; ez bada errudunaren gain, behintzat, gainerako herritarren gain (*idem*, 22). Jendarte diziplinarioe-

tan subjektibotasunak produzitzeko panoptikoa deritzon prozedura aplikatzen da. Panoptikoa isolamenduan eta inkomunikazioan oinarritutako botere dispositiboa da, subjektuak uneoro ikusgarri egotera behartzen ditu, eta, ondorioz, dagokien araua barneratzen dutela ziurtatzen du (Jiménez Villar 2020, 298). Arau hura diziplinak proposatzen duen eredu optimoa da, eta hori bera bilakatzen da normala eta anormala denaren arteko bereizketa egiteko (normazioa) tresna. Hala, eredura egokitzen dena normala izango da, eta bestea anormala. Eredua existitzeak bihurtzen du posible, beraz, normalaren eta anormalaren arteko bereizketa egitea (Foucault 2006, 75-76).

Azkenik, segurtasuna da Foucaultek *Sécurité, Territoire, Population* —«Segurtasuna, Lurraldea, Populazioa»— ikastaroan modu sakonean landutako mekanismoa. Haren azalpenen arabera, ingurunearen gaineko erregulazioaren bidezko populazioaren gobernua da segurtasuna (*idem*). Boterea besteak norbere borondatea egikaritzera bideratzeko ahalmena bada, gobernua da botere hori praktikan jartzeko modua. Hau da, eredu ekonomikoaren bidez boterea egikaritzea: gobernatzea da gauzak eta pertsonak dagokion helburura bideratzeko taktikak erabiltzea. Herritarren atsekabea ez dadin matxinadaren eta sedizioaren muturrera iritsi, ekonomia eta iritzia manipulatu beharko ditu gobernuek. Horretarako, alde batetik, pertsonen kontzientzietan eragiteko gaitasuna izan behar du gobernatzen duenak. Bestalde, ekonomia gobernatzearen erdiguneko elementu bilakatuko da, alegia, biztanleekiko, aberastasunekiko eta jarrerekiko zelatatze— eta kontrol-forma bat (*idem*, 120).

4.1. Gubernamentalitatea eta liberalismoa

Behin mekanismo nagusiak aztertuta, jo dezagun zehaztasunetara, botere-mekanismoak joan jartzeko moduetara. Has gaitezen gubernamentalitatetik. Segurtasun-erregimenean boterea gauzatzeko moduari gubernamentalitatea deritzo. Biopolitika deritzon botere-formaren jarduna azaltzea ahalbidetzen duten ezagutza eta praktika sozio-politikoaren multzoa da gubernamentalitatea. Baina boterea ere bada, bere horretan, gizakien jokabidea gidatzeko modua ere (*idem*, 233). Gorputzen dominaziotik jokabideen gidaritzara pasatzen da. Gubernamentalitateak diziplinaren atzerapausoa transmititzen du, urrutiko gobernu eredu baten kontzeptualizaziora hurbilduz. Botere-modalitate berri bat da ez baitu bere jardunerako jazarpen zuzena edo norbanakoekin kontaktu fisikorik behar. Aldiz, urrutiko boterea da, «joko arauen gaineko esku-hartze sakona jokalariai ukitu gabe mantentzen dituen» (Santiago 2019, 160). Nola jarduten duen gubernamentalitateak? Bada, norbanakoen jardute-ingurunean esku-hartzen du, askatasun espazioak gaituz, tolerantzia-eremuak baimenduz, inguruneari zuzendutako ekintzak artikulatuz, diziplinaren arau uniforme eta zuzentzaileen ordeztu arau elastikoetan oinarritutako gobernu ezarritu, gorputzen materialtasuna baztertuz esku-hartze politikorako objektu lehenetsi moduan (*idem*, 157).

Liberalismoa segurtasun-aroaren gobernu forma da. Gubernamentalitatearen logikari jarraitzen dio: jendeak egin dezala eta gauzak gerta daitezela uzten du. Foucaulten arabera,

ordea, askatasunaren, segurtasunaren eta beldurraren arteko harremanek osatzen dute liberalismoa (Lemke 2020, 63). Norbanakoek beren askatasuna gauzatzeko baldintzak sortzen ditu liberalismoak, kontsumo objektu bihurtuz, horixe baitu beharrezkoa gobernatzeko (*idem*, 64). Hala, askatasuna ideologia eta gobernu-teknika bihurtzen da aldi berean (Foucault 2006, 71). Askatasuna ezin da, ordea, era mugagabea gauzatu; kalkulu-printzipioen bidez erregulatu behar da ziurgabetasunaren arriskuari aurre egiteko, eta hor sartzen dira jokoan segurtasun-aparatuak; askatasun liberala egikaritu ahal izateko albo-kalte eta oinarritzko baldintza gisa (Lemke 2020, 64-65). Segurtasuna eta askatasuna, beraz, ez dira elkarren kontrakoak eta bataren indartzeak ez du zertan, ezinbestean, bestearen galera ekarri. Segurtasuna, populazioaren zirkulazio-prozesuak, hau da, pertsonen eta gauzen lekualdaketa askatasuna, erregulatzeko modua da (Foucault 2006, 71).

4.2. Segurtasun-mekanismoak

Segurtasun-mekanismoen ezaugarriak aztertuko ditugu ondorengo lerroetan. Boterearen ideia horrek ez du norbanako bakoitza uneoro subiranoaren ikuskaritzapean edukitzeko zelatatze sakona erabiltzen; aldiz, populazioan ardaztuko diren mekanismoak ezarriko dira. Gobernuak itxuraz populaziotik urrun dauden baina —kalkuluen, analisiaren eta hausnarketaren arabera— populazioan eragina izan dezaketen gauzetan eragiten du. Hortaz, populazioan eragiteko helburuarekin, ingurunea da erregulazioaren jo-puntu, ez norbanakoak (*idem*, 40-42). Izan ere, zirkulazioaren kontrol eta erregulazioaren bitartez pertsonengan eragitea bilatzen dute segurtasun mekanismoek. Hori dena ingurunean gertatzen da, hots, ingurunean egikaritzen dira segurtasun-mekanismoak.

Bestalde, desira, hau da, norbanakoaren interesaren bilaketa, aldagai garrantzitsua da. Joera legalista eta diziplinariotik haratago joanaz, norbanakoaren interesa populazioen gobernurako oinarritzko helburu eta tresna bilakatuko da. Norbanakoen interesei —betiere muga batzuen baitan— jarduten utziz gero, horiek populazioaren interesa produzitzeko dute, eta interes kolektiboa populazioaren maneiurako erabilgarria izango da (*idem*, 96). Hala, segurtasun-mekanismoak norbanakoaren interesetan esku-hartze periferikoa egitera mugatzen dira, eta esku-hartzearen helburu den arazoa ez da desagerrarazten. Oso tera, haren erregulazioaren bitartez, zentzuzko oreka bat ezartzen da (Santiago 2019, 166).

Erregulazioaren logikari jarraituz, helburua ez da fenomenoak ekiditea, fenomenoak berak bere burua mugatzeko, berori jokoan jartzea baizik. Izan ere, irregularrak diruditen zenbait fenomeno koiuntural behatu eta zenbatzean, horiek irregularrak direla ikusten da (Foucault 2006, 98). Zer gertatzea espero den jakitea da erronka, normaltasun ezberdinak zeintzuk diren identifikatzeko eta normaltasun globaletik urrutien daudenak murrizten saiatzeko. Horretarako, segurtasun-dispositiboek oraindik gertatu ez den horretan jartzen dute arreta, probabilitateen estimazio baten bitartez soilik kontrola daitezkeen gertaera posibleak kudeatuz. Jendartearen ezaugarrien edota gertaeren probabilitatea aztertzen da estatistikoki, kostu-etekin kalkulua bezalako tresna ekonomikoen bitartez (Dillon eta

Lobo-Guerrero 2008, 279). Hala, media optimoa eta onargarria denaren —eta, beraz, pasa ezin diren— mugak ezartzen dira. Muga horien baitan, segurtasunak egiten uzten du, gertaerak beharrezkoak eta saihetsezinak diren prozesu natural bezala ulertuz (Foucault 2006, 67).

Probabilitatean oinarrituz, «normala» denaren eta «anormala» denaren artean bereizten da. Normaletik abiatuta normalagotzat edota onuragarriagotzat hartzen dena izango da norma/araua zein den ezartzeko kontuan hartuko dena (*idem*, 83-84). Beraz, fenomenotik ondorioztatzen da araua/norma zein den eta ez alderantziz (normalizazioa). Arau horren baitan, hau da, normaltzat hartzen diren gauza, pertsona edota jokabideen kasuan, ezberdin direnekiko tolerantzia-maila altua izango da (Santiago 2019, 167). Hortik kanpo gertatzen dena, ordea, ordenu sozialarentzako atzeratua, degeneratua, alferrikakoa eta arriskutsua den bizitza moduan seinalatuko da segurtasunaren bitartez. Hortaz, normaltasunetik at geratzen dena mehatxagarritzat hartuko da.

Egun, mehatxua arriskutsuak diren eta jendartearen baitan bizi diren «beste» horiek dakarte. Mehatxu horren internalizazioaren bidez, gizarteak subjektua sekurizatzeko konpromisoa erreproduzitzen du prebentzio-neurri gisa, denok garelako potentzialki arriskutsuak. Adibidez, terrorismoa masa-kontrolaren arazo moduan aurkeztuz, masak etengabe mehatxatuta dauden eta aldi berean mehatxagarriak diren entitate sozial moduan kokatzen ditu segurtasunak (Wichum 2013, 165). Ziurgabetasun eta segurtasun-pertzepzioak eta segurtasun-desira, beraz, ez dira soilik errealak diren mehatxu espezifikoek lotzen. Aldiz, segurtasun-mekanismoen tresna nagusiak diren datu estatistikoetan, arrisku-kalkuluetan, errutina sozialetan eta halakoetan oinarritzen dira. Baina kalkulu horiek ez dira soilik gobernuari dagozkion praktikak. Ostera, arrisku eta ziurgabetasun sozialak kudeatzea, neurtzea eta kalkulatzea espero da norbanakoengandik beraiengandik, babes neurriak hartuz. Ikuspegi horren arabera, ekintzailatza, arriskuen kudeaketa arrazionala eta norbanakoaren ardura dira arrakasta edo porrot soziala eragiten dutenak (Lemke 2020, 65). Horrek erreikuspena eta zuhurtzia eragiten ditu, eta norbanako osasuntsuak prebentzio-neurriak hartu behar dituzten sintomarik gabeko pertsona gaixo bihurtzen ditu (*idem*, 68). Etengabeko mehatxu sentipenak eta horren aurrean erantzuteko prestaketak mehatxua bera etorkizunean gerta daitekeen zerbitzu bezala ezartzen dute, egunerokoan etengabeko presentzia edukitzea eraginez. Hala, etorkizuna gailentzen zaizkio iragana edo orainaldiari.

Testuinguru hartan, indarkeriaren erabilera legitimatzeko segurtasun-mekanismo moduan erabiltzen da beldurra: (batzuen) aurkako gerra (beste batzuen) bizitzak babesteko. Achille Mbembek (2011) azaltzen duen moduan, bizitzen kontrol eta erregulazioaren bitartezko gobernuak, biopolitikak, badu txanponaren bigarren alde bat: nekropolitika. Subiranotasunaren oinarri den hiltzeko eskubidea nabarmendu eta etsaiaren heriotza jartzen du erdigunean. Indarkeria espeziearen defentsarekin justifikatzen denean, jardun politiko hilgarria legitimatzeko gaitasuna arrazionalagoa, kalkulatuagoa, utilitarioagoa eta, beraz, beldurgarriagoa bilakatzen da (Evans 2010, 426). Hala, bizitzak babesteko hiltzeko behar hurak bizitzeari merezi dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa ahalbidetzen du.

Byung-Chul Han-en arabera Foucaultek landutako boterearen kontzeptua iraungi egin da. Egun, komunikabide digitalak dira informazioaren menderakuntza posible egiten dutenak. Komunikazioa zelatatze-bide bihurtu da, eta pertsonak hiperkomunika daitezzen eskatzen du egungo erregimenak (Han 2022, 11). Hala, panoptiko digital moduan identifikatu daitezkeen sare sozialen bitartez gauzatzen den elkarren arteko etengabeko komunikazioak norbere buruaren menderakuntzan era aktiboan parte hartzera bultzatzen ditu norbanakoak.

Parte-hartze aktibo hau, gainera, modu askean egiten dutela sentitzen dute pertsonak; haien borondatez kokatzen dira fokupean. Zelatatuak baino, aske sentitzen dira. Kanpo-eragilean menpe baino, leihatze optimizatzen diren proiektu independentetzat dute haien burua. Hala, pertsonak izaki «makiniko» bihurtzen dira (Han 2015a; hemen aipatuta: Jiménez Villar 2020, 303). Askatasun sentsazio hori da dominazioa bermatzen duena, nagusi den erregimenaren aurkako erresistentziarik ez egotea ahalbidetzen baitu. Hau dena ilusioitsu bat da, ordea, benetan aske dena informazioa baita, ez pertsonak (Han 2022, 15).

Gainera, gobernatuak ikusgarri bilakatzen dira gardentasunaren printzipioa jarraituz. Besteek zelatatzea baimentzeaz gain, etengabeko ikusgarritasun horrek norbere burua zelatatzea dakar, arauarekiko egon daitezkeen desbideraketan auto-errepresioa eragiten baitu etengabeko ikusgarritasun horrek (Han 2014c, 21-22; hemen aipatuta: Jiménez Villar 2020, 299).

Amaitzeko, datuen zirkulazio masiboak gizartearen dinamika osoaren inguruko ezagutza bereganatzea eta ezagutza hori pertsonen jokabideetan eragiteko erabiltzea baimentzen du. Horretarako, Han-en hitzetan psikopolitika forma hartzen duen botereak pertsonen psikean eragiten du, haiek kontziente izan gabe (Han 2022, 23).

5. EZAGUTZA, EGIA ETA SUBJEKTIBITATEEN ERAKETA

Boterea bera eta haren mekanismoak azaldu ostean, botereak ezagutza, egia eta subjektibitateen eraketan duen eragina jorratzea falta zaigu. Filosofia politikoak ordura arte arakatu izan bazuen nola eragiten duen egiak boterearen mugetan, Foucaultek galdera hau plazaratuko du: nola sortzen dute eta baliatzen dute egia botere-harremanek? (Foucault 1977, 93). Izan ere, gizarte bakoitzak bere «egiaren erregimena» dauka: hots, egiazkotzat onartzen duen diskurtso-mota; «egiazko» eta «gezurrezko» baieztapenak bereiztea —eta saritu edo zigortzea— ahalbidetzen duten mekanismoak; ezagutza transmititzeko aparatu eta prozedurak; egia zein den ezartzeko ahalmena dutenen estatusa, etab. (*idem*, 131). Foucaultek berak konprobatu zuenez, botere-harremanen jarraipenik egin gabe, nekez uler dezakegu zergatik gailentzen den egia jakin bat gainontzeko egien gainetik. Ondorio horretara heldu zen bere lehenengo lanak «ezagutzaren arkeologia»ren bidez burutu ostean. Metodo horrek ahalbidetu zion erregimen diskurtsibo ezberdinak jarraitzea historikoki, baina, esan bezala, ezin izan zuen azaldu zerk eragiten zuen egia posibleetako batzuk «egiaren erregimena»ren parte izatea, eta besteak ez. Hori dela medio, ondorengo

lanetan «boterearen genealogia»ren metodoa erabili zuen, xede izanik botere-harremanak kontuan izatea egia posible ezberdinen arteko dinamikak —hots, «egiaren jolasak»— hobeto ulertzeko (Rae 2020, 94-99). Foucaultek dioenean boterea, zapaltzailea izateaz gain, emankorra ere badela, horixe dauka buruan hain zuzen, alegia, botereak sortzen dituela diskurtsoa, ezagutza, egia eta, azken finean, errealitatea bera ere (Foucault 1977, 119).

Hortik tiraka, botereak ezagutza, egia eta errealitatea sortzen baldin baditu, subjektuak ere eratzen ditu. Norbanakoa ez datorrenez erabat «eratuta» mundura, ez dauka berezko nortasun eta ezaugarriarik (Gordon 1999, 398-399); aitzitik, subjektibitateak gizarte-harremanen baitan —eta haien bitartez— eratzen dira (Allen 2002, 135). Botere-harremanak harreman-mota guztietan immanenteak diren heinean, subjektua boterearen emaitza edo ondorio litzateke, eta subjektibitatea modu lausotu, historiko eta eratuan ulertu behar dugu (Foucault 1977, 117, 189). Laburbilduz, ikuspegi foucaultarretik, boterea *sine qua non* baldintza da subjektibitate indibidualarerako (Allen 2002, 135).

Botereak subjektuak eratzen dituela baieztatzeak agentziaren ukapena al dakar berekin? Honaino azaldutakoa kontuan hartuta, batek pentsa lezake filosofo frantziarrak ez diola tarterik lagatzen agentziari. Jakina, haren teorizazioetan subjektuak toki zentral bat ez okupatzeak kritikak eragin dizkio: 1) subjektuak diskurtsoen konduktuak eta botere/ezagutzaren emaitza exogenoa balira bezala irudikatzea, modu erabat pasiboan; 2) agentziaren kontzepturik ez izatea berez, praktika diskurtsiboak subjekturik ez balute bezala jorratzen dituen heinean; 3) aldaketa azaldu ezin izatea, etab. (Caldwell 2007, 770-771). Kritika horiek direla-eta, pentsamolde foucaultarrari darion subjektuaren «deszentratzea» subjektua «burdinazko kaiola» batean giltzapetuta uztearen edo, areago, «subjektuaren heriotza»ren parekoa dela eman izan da aditzera (Allen 2002). Subjektuaren heriotzaren irakurketari jarraituta, subjektuak ezingo luke botere-harremanen egituran modu intentzionalen eragin, eta ekintza politiko intentzionala baztertuta legoke (Rae 2020, 89).

Alabaina, kritika horiek desitxuratu egiten dute subjektu foucaultarra. Izan ere, subjektuaren «heriotza» izatekotan, heriotza horrek subjektuaren ulerkera zehatz bati egiten dio erreferentzia:

I offer two arguments to dismiss this interpretation. First, it misunderstands the nature of the subject that Foucault attacks. Rather than attacking all forms of the subject, he is, in fact, only rejecting the notion of an essentialist, unencumbered, constituting subject. Second, it confuses “effect” with “determine” and so fails to recognise that just because the subject is an effect of power relations does not mean that it is determined by them (Rae, 2020: 89-90).

Hau da, Poitierseko pentsalariak baztertu nahi zuen subjektuaren ikuskera esentzialista eta eratzailea, horren ordeztu hura modu eratuan ulertzeko. Hori esanda, boterea ez da guztiz determinatzailea, haren diziplina osatugabea baita beti, aukerak egonik erresistentzia diskurtsiboa praktikatzeko (Foucault 1979, 101). Erresistentziari hainbesteko garrantzia

ematen dio, ezen boterearen definizioan txertatzen duen, baieztatuz ez dagoela erresistentziarik gabeko botere-harremanik (Foucault 1977, 142). Hain zuzen ere gizakiok askeak garelako eta erresistentziarako gaitasuna dugulako, existitzen dira boterea eta bere mekanismoak; hots, boterea ezinbesteko baldintza baldin bada subjektibitatearako, alderantziz ere, askatasuna boterearen existentziarako aurrebaldintza da: *«power relations are possible only insofar as the subjects are free. [...] if there were no possibility of resistance [...] there would be no power relations at all»* (Foucault 1997, 292).

Bere azkenengo urteetan, pentsalari postestrukturalistak subjektuarengan jarri zuen arreta hain zuzen, ordura arte azpiratze-teknologietan gehiegi zentratu zela aitortuz (Foucault 1988, 19), eta berariaz gaitzetsi zuen arestian aipatutako «subjektuaren heriotza»ren irakurketa: *«the idea that power is a system of domination that controls everything and leaves no room for freedom cannot be attributed to me»* (Foucault 1997, 293). Aitzitik, «genealogia» delakoaren funtzioa zen jendeari erakustea pentsatzen dutena baino askeagoak garela, egiazkotzat jotzen dugun hori deseraiki dezakegun kontingentzia historikoa delako (Martin 1988, 10). Hain zuzen ere «zerbait» bilakatu garenez, «beste zerbait» ere bilaka gintezke (Mendieta 2011, 122; hemen aipatuta: Ball 2013, 126). Haren lana egitura-agentzia auziaren berrartikulaziora bideratuta egonik nolabait, azkenengo garai horretan «nitasunaren teknologiak» lantzen hasi zen —hau da, norbanakoak bere subjektibitatearen eraketara bideratuta gauzatzen dituen praktikak, betiere boterearen baitan eta, batzuetan, boterearen aurka (Rae 2020, 118). Haatik, Foucault zendu egin zen eta, azkenean, azpитеorizatuta utzi zuen subjektuaren alde aktiboa⁶. Edozelan ere, bere bizitzako azkenengo urtera arte, berretsi egin zuen nitasunaren praktikak ez direla norberak ezerezetik asmatutakoak, baizik eta nork bere kulturen aurkitutako patroiak (Foucault 1997, 291).

Subjektuaren inguruko Foucaulten lana osatugabea denez, interesgarria da bere lana postestrukturalismoaren bigarren belaunaldiko autoreenaz osatzea. Ildo horretan, Ernesto Laclau egitura orok hutsune, akats, gabezia edo ezintasun bat duelakoan dago. Egituraren «dislokazio» eta «erabakigabetasun» horiek direla-eta, egiturak nekez lor dezake behin betiko eta erabateko egikaritzea. Hortik tiraka, ordena sozial eta politiko oro ezegonkorra eta erradikalki kontingentea izatera kondenatuta baldin badago, egiturak huts egiten du subjektuaren eraketan. Egituraren osagabetasunak subjektuaren osagabetasuna dakar berekin. Egitura nahiz subjektua kontingenteak eta prekarioak dira:

Si el sujeto es constitutivamente falta, vacío, los actos de identificación —de decisión— sucesivos cumplirán una función de llenado, aunque siempre parcial y precaria. Como afirma Laclau: si hay necesidad de identificación, es porque no hay identidad. Dado que toda estructura es dislocada, ninguna identificación llega nunca a constituir(se) en una identidad plena. Pero esto significa [...] que no tenemos simplemente posiciones de

⁶ Nitasunaren teknologiak azaltzeko, filosofia greko-erromatarreko kontzeptu batera jotzen du: *«epimelesthai sautou»*, hots, norbera zaintzea edo norberaz arduratzea. Hurrengo mendeetan, baina, kristatutasunak norberaren sakrifizioaren truke eskainiko zion salbazioa norbanakoari, norbera zaintzea berekoia zelakoan (sakontzeko: Foucault 1997; Martin *et al.* 1988).

sujeto dentro de la estructura, sino también al sujeto (en tanto falta) como un intento de llenar las brechas estructurales a través de actos de identificación. De este modo, Laclau destaca la idea de que la identificación no puede dar como resultado una identidad subjetiva estable. Su horizonte último es el del fracaso final, producto de una imposibilidad constitutiva (Guille 2021, 55).

Gertakari dislokatzaile batek agerian uzten duenean egituraren —eta, beraz, subjektuaren— gabezia, «subjektibitate erradikala/politikoa» aktibatzen da. Zer esan nahi du horrek? Gabezia edo hutsune hori betetzeko, subjektuek euren burua behartuta ikusten dutela objektu eta diskurtso berriekin identifikatzera (Glynos eta Howarth 2008, 162), sarritan harreman antagoniko eta betiere kontingenteekin. Izan ere, posible da egituraren dislokazio bat bizitzea eta Jainkoaren sumindurari, burgesiari edo juduei egozte (Laclau 2002, 81; hemen aipatuta: Guille 2021, 50). Egiturak ezin duenez erabat determinatu subjektua, subjektibitate erradikalak xede du hutsune hori betetzea (Glynos eta Howarth 2008, 164), eta eragile indibidual nahiz kolektiboen agentziak zeresan handia du subjektibitate politikoaren eraketaren logika horretan (hots, hegemoniaren logikan), artikulazio hegemoniko oro borroka politikoaren emaitza kontingentea baita. Azken batean, postestrukturalismoak —eta, konkretuki, Laclau-k— egitura-agentzia auziari emandako erantzuna azalpen dialektikoaren erradikalizazioa edo berrartikulazioa litzateke.

Hala ere, Foucaulti subjektuaren heriotza leporatzen bazioten, Laclau-ri egotzi diote subjektua modu autonomoan eta «auto-eratzaille» irudikatzea. Laclau-k kritika horiei erantzun die argudiatuz subjektuen erabakiek egiturak birkonfiguratu, eraldatu edo berrerratu ditzaketela, baina ez direla egiturak sortzeko gauza, ez eta euren subjektibitatea autode-terminatzeko gauza ere (Laclau 1993, 220; hemen aipatuta: Guille 2021, 58-63).

Bukatzeko, Judith Butler filosofo estatubatuar juduak garatutako «teoria performatiboa» ere lagungarria da subjektibitateen eraketa ulertzeko. Teoria horren arabera, generoa ez da esentzia bat, baizik eta performatiboki eratutako zerbait, generoaren zerizanaren ondorioztat jotzen diren adierazpenak edo ekintzak izanik, hain zuzen, generoa eratzten dutenak: «*gender is always a doing*» (Butler 1990, 34). Hortaz, performatibitatearen kontzeptuak erreferentzia egiten dio sozialki lotesleak diren ondorioak produzitzen dituen prozesuen multzoari (Butler 2010, 147). Alabaina, efektu ontologiko horiek eragiteko, ezinbestekoa da ekintza performatiboen errepikapena (Nentwich *et al.* 2014, 5). Modu horretan, performatibitateak erreferentzia egiten dio botere-harremanen eta subjektuaren arteko «kokonstituzio»ari: botere-harremanek subjektua sortzen dute baina subjektuak ere, bere ekintzen bitartez, betikotu egiten ditu botere-harreman horiek (Rae 2020, 147). Aldi berean, arau sozialak ekintza performatiboen errepikapenaren menpe egoteak leihoa irekitzen dio aldaketaren aukerari. Izan ere, subjektuen ekintza performatiboak arau sozialak eta botere-harremanak betikotzera edo eraldatzera —hau da, performatibitate iraultzailera— egon daitezke bideratuta, drag artisten performantzia izanik adibiderik paradigmatikoa generoari dagokionez, espektatiba sozialen aurka egiten duten heinean (Nentwich *et al.* 2014, 5).

6. BI ADIBIDE: HEZKUNTZA ETA POLIZIA

Pentsamolde foucaultarra edo postestrukturala abstrakzio-mailara ez mugatzearen, eta artikuluan zehar azaldutako kontzeptuak argitze aldera, atal honetan bi adibide zehatz erabiliko ditugu: derrigorrezko hezkuntza eta polizia.

6.1. Eskola, subjektibitateak eratzeko aparteko tresna

Bere lanetan, Michel Foucaultek presondegia, sexualitatea edota eromena aztertu zituen, eta hezkuntzari buruzko erreferentziak zeharkakoagoak izan ziren. *Surveiller et punir* —hots, Zelatatu eta zigortu— izeneko liburuaren hirugarren atalak hezkuntzako diziplina-teknikei buruzko adibideak barnebildu arren, aipamen horiek arlo militar, monastiko, ekonomiko, juridiko edota medikoetako antzeko adibideekin tartekatuta daude (Foucault 2023). Beharbada horregatik, hezkuntza-arloko ikerketak ez omen zion arreta handirik eskaini haren ekarpen teorikoei 1990eko hamarkadara arte (Marshall 1989, 99). Azken hamarkadetan, aldiz, biderkatu egin dira ideia foucaultarrak hezkuntzaren arlora hurbildu dituzten lanak, autoreren batek postestrukturalismoa jada hezkuntzako ortodoxia akademikoaren parte dela iradokitzeraino (Hill *et al.* 2002; hemen aipatuta: Butin 2006, 372). Ez da harritzekoa. Izan ere, teoria postestrukturalaren eta eskolaren arteko harremana bi noranzkoko da: hau da, hurbilkera postestrukturala funtsezkoa da eskola-arloko botere-harremanak eta subjektibazioa —hots, subjektuen eraketa— ulertzeko eta, alderantziz ere, eskolak kontzeptu postestrukturalak argitzeko balio dezake. Esate baterako, hezkuntzan erraz antzeman daiteke botereak, alde errepresiboa ez ezik, alde emankorra ere baduela, zeren eskolaratzeak ikasleria diziplinatu eta boteretu egiten baititu aldi berean, ezagutzaren transmisioaren bidez (Marshall 1989, 112).

Eskolaren genealogia arakatzuz gero, antzekotasun handiak daude instituzio penal, militar, mediko edota industrialen hastapenekin. Izan ere, instituzio horiek kolonizatu zituen bezala, diziplinaren mekanismoak eskola ere kolonizatu zuen lehen modernitatean (Audureau 2012, 139; Foucault 2023, 160-161). Espetxeak, fabrikak edota eskolak ez ziren sortu arrazoi arrazional eta errukitsuengatik, baizik eta arriskuak neutralizatzeko edota eraginkortasuna handitzeko (Marshall 1989, 108). Mundu modernoaren hasieran eskola instituzio bat gehiago baino ez zen, baina laster erakutsiko zuen bere potentzialtasuna diziplina-tekniken aplikazioari dagokionez. Orduantxe —xix. mendearen hasieratik aurrera—, zabaldu eta sistematizatu beharreko zerbait bilakatu zen, sozializatorako eragile nagusietako bat izatera heltzeraino, familiarekin edota komunikabideekin batera. Horrenbestez, eskolaratze masiboa diziplina-teknologiaren ondorioa izango litzateke, haien kausa baino gehiago (Deacon 2006, 179-180). Jakina, eskolak aldaketa nabarmenak bizi izan ditu. Hezkuntza tradizionaletik hezkuntza garaikideranzko jauzian, atzean gelditu ziren zigor fisiko publikoak, erabateko obedientzia eta sumisioa, eta memorismo sistematikoaren metodoa. Gaur egungo pedagogiak sustatzen du ikasleek rol aktiboagoa eta autonomia eta zeresan handiagoa izan dezaten (Esteban Hilario 2015, 130-132). Hala eta guztiz ere, botere-harre-

manek indarrean jarraitzen dute erabat, zeren eta aldaketa horiek botere-teknologiaren sofistikazioaren adierazlea baino ez bailirateke izango (Marshall 1989, 108-109). Eskolaratze masiboak eta irakasleen trebakuntzak bidea ireki zion «ortopedia moral» bati, non ikaslearen beraren barne-zuzenketak kanpo-mendekuaren lekua hartzen duen (Deacon 2006, 181-182).

Baina gatozen harira: zer botere-teknologia erabiltzen dira zehazki hezkuntzaren eguneroko bizitzan? Zer-nolako formak hartzen ditu biobotereak ikastetxeetan? Hasteko, bistan da eskolak diziplinaren mekanismoaren agerpenerako beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela, haurrentzat espazio erdi isolatua edo behintzat bereizia sortzen duen heinean, non ikasleen jokabideak —maiz zuzenduak izan behar direnak— ia une oro ikusgarriak diren irakasle edota zaintzaileen begietara. Roger Deacon-ek dioenez (*idem*, 180), haurrak gizartearengandik baztertuz lortzen du eskolak, paradoxikoki, haurrak gizartearen botere —eta ezagutza-harremanetan integratzea. Eskolak sei hilabetez behatu ostean, ikerketa batek honela kodifikatu zituen botere-teknologiak islatzen dituzten praktika pedagogikoak: 1) zelatatzea (irakasleen edo ikaskideen partetik); 2) normazioa («normala» dena definitzen duen arau baten betearazpenaren exigentzia); 3) bazterketa (bestetasunaren eremuaren definizioa); 4) sailkapena (taldeena edota norbanakoena); 5) koka-pena (espazioan); 6) indibidualizazioa; 7) orokortzea (kolektibitateak ezaugarritzea), eta 8) arauketa esplizitua (arauak zigor edota sarien bidez betearaztea) (Gore 2000). Praktika horietako gehienak Foucaultek teorizatutako hiru kategoria hauetan subsumitu ditzakegu: zelatatze hierarkikoa, azterketa eta epaiketa normatzailea (Foucault 2023, 199-225).

Lehenik eta behin, zelatatzea oso presente dago derrigorrezko hezkuntzaren eguneroko bizitzan. Irakaslearen edota zaintzaileen autoritateak, espazioaren eta denboraren antolamenduak eta teknologia berrien erabilerak ahalbidetzen dute hori: irakasleek ikasleak behatzen dituzte ordena eta isiltasuna bermatzeko —azterketetan kopia ez dezaten, adibidez—; eskolak espazio eta denbora-terminoetan antolatuta daude —haurrak, adinaren arabera ikasmailatan sailkatuta, eta eskolak, iragasgaika bereizita, ordutegi bati jarraiki—; ikasgelak ikasleen behaketarako daude antolatuta, ikasle bakoitzak bere lekua duelarik; jantokian eta jolastorduan ere zaintzaileak egoten dira; ikastetxeek tresnak dituzte ikasleen jardura monitaritzatzeko Interneten —webgune desagokietan sartzea ekiditeko—; zenbaitetan bideozaintza ere egon daiteke bullynga prebenitzeko, etab. (Jefferson eta Smith-Peterson 2021, 2-3). Bigarrenik, azterketa da modurik esplizitu eta eraginkorrena adierazteko zer ikasle egin duen «ondo» eta zeinek «gaizki», hau da, ikasleak saritzeko eta zigortzeko (Roth 1992, 687). Hori gutxi balitz bezala, errebalida edota hautaprobetan —hots, kanpo-azterketetan— noten araberako hierarkia edo «ranking» bat ere ezartzen da, ikasle bakoitzaren etorkizuneko lanbidea definitzera hel daitekeena (Schrag 1999, 377-378). Hirugarrenik, epaiketa normatzaileak erreferentzia egiten dio jokabide «ez normalen» epaiketari. Jokabide «ez normal» baten epaiketa izan liteke, adibidez, uniformeak janzteko eskatzen duen ikastetxe batean, neska batek mutilari dagokion uniformeak janztea —hots, prakak janztea, eta ez gona—, eta ikastetxeak horren aurrean neurriak hartzea. Bestelako jokabide «ez normalak» eskolara berandu heltzea, letra zatarra edukitzea, behar

bezala jesarrita ez egotea, desobeditzea, edo emaitza akademiko kaskarrak izatea ere izan daitezke (Foucault 2023, 176-177, 208). Azken finean, azterketek, norbanakoa ebaluatzeaz gain, mediana edo batez besteko bat ezartzeko ere balio dute, arau gisa funtziona dezakeena (Roth 1992, 687-688). Zigorak ere askotarikoak izan daitezke: jolastordutik gabe geratzea; gurasoak bilera batera deitzea; umiliazioak ikaskideen aurrean, zigor fisiko txikiak, etab. (Foucault 2023, 208). Zelatatze hierarkikoak, azterketak eta epaiketa normatzaileak diziplinatu egingo lituzkete ikasleak, eta eragina lukete beraien subjektibitatearen eraketan, posible izanik betiere erresistentzia-ekintzak gauzatzea.

Irakaslea, bere aldetik, ez da monarka absolutua ikasgela barruan, inondik inora ere. Aitzitik, irakaslea ere menpekoa izan daiteke beste botere-harreman batzuetan, hala nola, gurasoekiko, zuzendariarekiko edota ikuskariarekiko harremanetan (Deacon 2006, 184). Haurren subjektibazioa, beraz, ez dago irakasleen esku soilik. Batetik, eskolaz kanpoko sozializazio-eragileek —familiak, masa-komunikabideek edota Internetek— eta haiei darien botere-harremanek ere baldintzatzen dute subjektibitatearen eraketa eta haurren interpretazioa eskolako gertakizunen inguruan. Bestetik, hezkuntza-sistema bere horretan ere ez dago irakaslearen menpe, bere gainetik dauden faktoreak —bereziki, curriculum eta testuliburuak— giltzarria baitira ikasleen subjektibazioan.

Ildo horretan, esan beharra dago azken hamarkadetan pedagogiaren eta hezkuntza-soziologiaren korrante kritikoak curriculumari buruzko ikuspegi teknokratikoa zalantzan jarri duela marko gramsciar, foucaultar, feminista eta poskolonialetatik abiatuta (Apple 2003, 3). Paradigma teknokratikoak «ezagutza objektibo eta neutral gisa aurkeztu izan du curriculum» (Imaz Bengoetxea 2012, 132), eta beraz irakasleek ez dute motibaziorik izan curriculumaren edukiak aztertu eta hautatzeko, eduki horiek dagoeneko aztertuak eta hautatuak izan direlako. Pedagogia kritikoak, aldiz, agerian utzi du inozoa dela eskola-curriculumaren ezagutza neutrala dela pentsatzea; aitzitik, curriculum «Troia» bezalakoa da, neutraltasunez mozorrotuta zabaltzen dituelako informazio eta ezagutza manipulatu, gizartearen gaineko ikuspegi jakin bat helarazteko ikasleei (Torres Santomé 2009, 65). Horrela, ezagutzaren demokratizazioarekin batera, eskolaratzeak kontrol soziala ekarriko luke, horretara bideratutako kontzientzia-formak sortuko lituzke eta ikasleengan (Apple 1990, 3).

Curriculumaren neutraltasun eza ulertzeko, oso lagungarria da «tradizio selektibo»aren kontzeptua: klase sozial, arraza, nazio, genero edota erlijioaren arabera sailka ditzakegun talde sozial ezberdinek sortu eta eskuragarri egindako ezagutza guztien artean, curriculumak soilik ezagutza batzuk hautatu eta antolatzen ditu. Esate baterako, «US History» irakasgaiaren edukiek ikuspegi zuria islatzen dute (hori bilakatzen delarik «ezagutza ofiziala» edo «legitimoa»), eta afro-amerikar, hispano, asiar amerikar edo natibo amerikarren ikuspuntua bazterrean gelditzen da, «herri-ezagutza» izatera kondenatuta⁷ (Apple 2003, 11). Generoaren ikuspuntutik ere, ohikoa da gizonezkoen obra, ekintza eta aurkikuntzek osatutako historiari jotzea eta emakumezkoena ahanzturan lagatzea. Nolanahi ere, curriculum ez ohi da alde-

⁷ AEBetako curriculumaren ikuspegi zurian sakontzeko: Martínez 2006; Sleeter eta Grant 1991.

bakartasunez inposatua izaten. Hobeto esanda, botere-harremanak eta borroken emaitzak islatzen dituen heinean, curriculumak batzuetan talde subalternoen ezagutza eta ikuspegiaren zati bat txertatzen du, talde menderatzaileen diskurtso orokorraren aterkipean, kontrol hegemonikoa berrartikulatze aldera (Apple eta Christian-Smith 1991, 10).

Halaber, konnotazio negatiboa erantsiz gatazka intelektual edota politikoari, curriculumak kontsentsuaren ideologia transmititu ohi du, botereak taxututako zenbait «egia eztabaidaekin»etan oinarrituta egoten dena (Young 1971, 8; hemen aipatuta: Apple 1990, 45). Funtsean, interes menderatzaileen konfigurazio ideologikoek osatzen dituzte egia eztabaidaekin horiek. Tradizio selektiboa, kontsentsu-ideologia eta egia eztabaidaekin di-rela medio, eskola-ezagutzak zilegitasun kontzeptuala bermatzen die talde menderatzaileei, eta zilegitasun hori etorkizuneko herritarren «habitus»ean metabolizatzen da (Anyon 1983, 51; hemen aipatuta: Sleeter eta Grant 1991, 80). Tradizio selektiboaren ideia bat dator erabat pentsamolde foucaultarrarekin. Michel Foucaultek «herri-ezagutza» edo «ezagutza azpiratu»en kontzeptua zerabilen erreferentzia egiteko zoroen edota gaizkileen ezagutzari, baita tokiko ezagutzei ere, eta sinetsita zegoen eskola eta unibertsitatea ezagutza ofiziala —bere hiztegian, «egiaren erregimena»— instituzionalizatu eta masiboki zabaltzeko aparatuak zirela (Foucault 1977, 82-84, 131-132).

Testuliburuak legez ezarritako curriculum ofizialaren konkrezioa eta irakaskuntzarako ohiko tresna izanik, testuliburu-ikerketetako adituak ere antzeko ondorioetara heldu dira. Informazioaren edo ezagutzaren transmisioarekin batera, testuliburuak errealitatea, egia eta subjektibitateak eraiki egiten dituzte. Thomas Höhne-ren aburuz (2005), eskola-liburuak «nortasun-eskaintzak» egiten dizkiete ikasleei. Irakaskuntzan pertzepzio, ikuspegi eta pentsamolde jakin batzuk normalizatu egiten dira, ordena diskurtsibo-sinboliko batekin batera, eta, modu deterministan ez bada ere, ikasleak ordena horretan integratzeko edo harekin negoziarazteko joera dago. Prozesu horretan, subjektua «asimilatu» edo «azpiratu» baino gehiago, subjektua bera «eratu» egiten omen da, Foucaultek iradokitzen duen bezalaxe.

Eskola-curriculumaren bitartez ikasleen subjektibazioan eta «habitus»ean eragin nabarmena duten egia eztabaidaekin horietako bat nazioa izaten da, esaterako. Daniel Tröhler ikertzaile suitzarrak «nazio-alfabetatze»aren kontzeptua garatu du (Tröhler 2020). «Alfabetatze»ak normalean irakurmen eta idazketa-gaitasunak ikastera/irakastera bideratutako prozesuari egiten badio erreferentzia, «nazio-alfabetatze»aren kontzeptuak adierazten du gizakiok ez garela jaiotzen suediarrek, boliviarrak, japoniarrak edo dena delakoa izanik; aitzitik, gizakiok ikasi egiten dugu suediarrek, boliviarrak edo japoniarrak izaten, irakurtzen eta idazten ikasten dugun bezalaxe. Nazio-alfabetatzeen ondorioz, naziokideek txikitatik ikasten dute nazio-ikur eta erritualak «irakurtzen» eta «idazten». Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, esan dezakegu ikasleek nazio-alfabetatze ezberdin eta paraleloak bizi dituztela, ikastetxearen eta erabilitako testuliburuaren arabera. Multinazionalen menpe dauden argitaletxeek Espainiako Estatua legitimatzera bideratutako subjektibazioak sustatzen dituzte; tokiko argitaletxeak, aldiz, subjektibazio euskaltzale edo aber-tzaleei irekitzen die bidea (Fernández-Iriondo 2024).

Arestian azaldu bezala, horrek guztiak ez du esan nahi erresistentziarako aukerarik ez dagoenik eta ikasleek jasotakoa irentsi besterik egiten ez dutenik. Aitzitik, politikariek diseinatutako curriculum ofizialez, multinazionalak sortutako testuliburuez edota irakasleek bitartekari gisa irakatsi dezaketenaz harago, ikasleek modu selektiboan aukeratu, berrinterpretatu edo gaitzetsi ere egin ditzakete jasotako «nortasun-eskaintza» horiek (Apple eta Christian-Smith 1991, 14). Era berean, Foucaultek berak aitortu zuen hezkuntza-sistema kontserbadore, memoristikotiko eta mugatzaileenetan ikasi duten norbanakoak ere gauza direla borroka iraultzaile bat abiarazteko, 1968ko maiatzeko protestek erakutsi bezala (Foucault 1977, 223; hemen aipatuta: Deacon 2006, 185). Munduaren luze-zabalean adibide gehiago aurki ditzakegu, non ikasleek ez zuten bat egin eskolako diskurtso ofizialarekin; hala nola, Hego Afrika apartheidaren garaian edota Hego Euskal Herria Francoren diktadura indarrean zegoenean. Horrenbestez, eskolako ezagutza eta egia ofizialek subjektibitate batzuen eraketari mesede egiten dioten arren, posible da erabat, arestian azaldutakoari jarraiki, egiturak huts egitea subjektuaren eraketan eta, gertakari dislokatzaileen aurrean, zenbait ikaslerengan subjektibitate politikoa aktibatzea, bide irekiko liokeena diskurtso alternatiboekiko identifikazioari.

Laburbilduz, pentsamolde foucaultarrak, betiere bestelako ekarpenekin uztartuta, potentzialtasun handia dauka hezkuntzarekin lotutako hainbat fenomeno aztertzeke. Azken batean, botere-harremanek presentzia nabarmena dute eskolako eguneroko bizitzan, eta hezkuntza arautua aparteko tresna da subjektibitateen eraketarako. Horretaz jabetuta, pedagogiaren, hezkuntza-soziologiaren edota testuliburu-ikerketen arloan, ekarpen postes-trukralistetatik abiatutako korrante kritikoak zabaldu dira, gaur egun ortodoxia akademiakoaren parte bilakatzeraino.

6.2. Polizia: segurtasunaren, diziplinaren eta biopolitikaren adierazpen eremu

Pentsamendu foucaultarra poliziaren teoria kritikoaren oinarrian dago. «Polizia» kontzeptuaz egiten duen erabilera zabal eta anitzak, ordea, zaildu egiten du botereari eta gobernuari lotutako bestelako nozioengandik bereiztea (Johnson 2014, 22). Ondorengo lerroetan, «polizia»ren azterketa foucaultar orokorretik abiatuko gara, jarraian, egungo polizia adierari honek egiten dion ekarpenean sakontzeko.

6.2.1. Poliziaren ulerkera Foucaulten pentsamenduan

Foucaultek poliziaren inguruan eskainitako hausnarketa nagusiek polizia modernoaren sorrerari buruzko tratatu labur bat osatzen dute⁸. Haren arabera, «polizia» kontzeptuak adiera ezberdinak izan ditu historian zehar. XV-XVI. mendeetara arte «polizia» deituko

⁸ Hausnarketa hauek honako lanetan daude jasota (Castro 2019, 192): *Histoire de la foile à l'âge classique* (1964), *Surveiller et punir* (1975), *Théories et institutions pénales* ikastaroa (1971-1972), *Sécurité, territoire, population* ikastaroko azken bi eskolak (1978ko martxoaren 29 eta apirilaren 5ekoak), *Omnes et singulatim. Vers une critique de la raison politique* eskola (1979) eta *The Political Technology of Individuals* eskola (1982).

zaio, alde batetik, autoritate publiko batek zuzendutako komunitate, elkarte edo giza-talde bati. Bestalde, komunitate horiek zuzentzen dituzten ekintzek ere «polizia» adiera izango dute. Azkenik, gobernu on baten emaitza positibo eta balioztatuari ere «polizia» hitzarekin egingo zaio erreferentzia (Foucault 2006, 356-357). Nolabait, irismen eta funtzio muga-gabea esleitzen zaio poliziari.

XVI. mendetik aurrera, Erdi Arotik zetorren egitura inperiala deseginda eta naturatik zein espiritualitatetik aldenduta, politikaren arrazionalizazio prozesu bat gertatuko da, Estatuan eta polizian gorpuztuko dena. Estatua, bere indarra sendotu eta handitzeko helburua izango duen gobernatzeko era garatzen joango da. Horren baitan, poliziaren helburua izango da Estatuaren indarra ahalik eta gehien handitzea, Estatu barruko ordena egokia mantenduz (Castro 2019, 193). Hala, pertsonen ekintzen kontrola izango du helburu, horien ekimenak eta bizitzak Estatuaren indarrak biderkatzeko erabilgarriak izan daitezen. Beraz, jendarteaz arduratuko da polizia.

Horretarako gizadiaren zenbait alderditan jarri beharko du arreta. Batetik, Estatuko hiritar kopurua. Bestetik, bizitzako beharrak; bereziki, osasuna, hiritarrek lan egin ahal izango dutela ziurtatzeko eta, lan egiteko baldintzak betetzen dituztenei Estatuarentzat beharrezkoak diren ofizioetan eta moduetan lan eginarazteko. Azkenik, zirkulazioa; pertsonen ekintzetatik eratorritako merkantzia eta produktuen zirkulazioa. Zirkulazio moduan, ordea, ez zaio soilik produktuen edota pertsonen zirkulazioari erreparatu behar. Zirkulazio hori ahalbidetu, erraztu, mugatu edo oztopatuko duten estimulu eta araudiak ere aintzat hartu behar dira (Foucault 2006, 187).

Laburbilduz, biopolitika poliziaren estrategien oinarri izango da. Izan ere, polizia izango da bizitza, Estatuaren indarrak finkatu eta handitzeko, baliagarria izango dela bermatuko duen baliabidea. Eta hori posible egiteko bizitza horiek gorpuzten dituzten norbanakoen zoriontasunari ere erantzun beharko dio poliziak (Foucault 2006, 188). Foucaulten hitzetan:

La policía es el conjunto de leyes y de reglamentos que conciernen al interior de un Estado, que tienden a afirmarlo y a aumentar su potencia, a hacer un buen empleo de sus fuerzas y, finalmente, a procurar la felicidad de los hombres (Foucault 2004, 335. he-men aipatuta: Castro 2019, 198).

Industrializazioarekin, ordea, ordura arte poliziaren funtzio moduan ulertu diren eremuak zatitu eta legea egikaritzeko funtzio «sinplea» egokituko zaio soilik poliziari, populazioei, osasunari eta merkatuari lotutako arazoak gobernu-instituzio berriei esleitzuz (Johnson 2014, 13-14). Polizia, beraz, justizia, armada eta ogasunarekin batera, laugarren funtzio estatal gisa eratuko da, legea egikaritzeko eta ordenu publikoa mantentzeko.

Polizia izango da desordena kopuru jakin bat ekiditeko tresna, eta desordenak deuseztatzea izango da haren zeregina (Foucault 2006, 405). Polizia, beraz, ez da justizia: gobernatzen duenak forma ez judizialean gobernatuen gain egiten duen ekintza zuzena da. Gu-

bernamentalitate zuzena da, Estatu-kolpe iraunkorra. Eta horretarako tresna ez da legea, araua, ordenantza, debekua, atxiloketa baizik (*idem*, 388-389). Aldaketa hark ekarriko du *polizia* kontzeptuaren ulerkera modernoa, «polizia-espetze sistema» diziplinarioa indarrean sartuz (Johnson 2014, 14).

6.2.2. Foucaulten pentsamendua poliziaren ulerkera modernoan

Gaur egungo polizia eta haren jarduna gizarte neoliberaletako ardatz nagusietako bat den gailu sekurtarioaren baitan kokatu behar da. García eta Ávilak *Enclaves de riesgo. Gobierno neoliberal, desigualdad y control social* liburuan azaltzen duten moduan, babes sozialerako baliabide urriak egonda, ziurgabetasuna, prekaritatea eta etsaitasuna nagusi diren eredu sozial batean, interes indibidualak komuna denarekiko pribilegiatzen direnean, bizitza arriskutsua bilakatzen da eta arrisku horrek segurtasuna bilatzera behartzen gaitu (García eta Ávila 2015, 18). Hala, eredu sozial neoliberalak sortzen duen berdintasun ezari arrisku, prebentzio, segurtasun, diziplina eta zigorrarekin erantzuten zaio (*idem*, 24). Horretarako, askotariko tresnak erabiltzen diren arren, instituzio nagusiak gizarte zerbitzuak eta sistema penala osatzen duten polizia eta espetzea dira (Wacquant 2010, 34).

Aurretik ikusi dugun moduan, kontzeptuok estuki lotuta daude Foucaulten botere mekanismoei. Hel diezaiozun, beraz, horiek poliziaren baitan nola egikaritzen diren aztertzeari. Lehenik eta behin, teknika horien garapena ulertzeko, gogoratu beharra dago ez direla era linealean, bata bestearen atzetik, agertzen. Haatik, era konplexuan elkarren artean harremanak dira, testuinguruaren arabera batzuk ala besteak gailendu arren, haien arteko elkarrekintza eta osagarritasuna mantentzen delarik. Poliziaren jardun errepresiboa, zelatatzeari eta zigorrari lotutakoa, haren funtzio produktibo edota «positiboa»ren bitartez zilegiztatzen da. Hau da, poliziak ez du soilik legea betearazten; Mendebaldeko markoak ezartzen duen legearen eta desobedientziaren, «zibilizazio» (zuri)aren eta basakeri (arrazializatu)aren arteko «lerro urdin fina» —the thin blue line— ere bada (Wall 2020, 321). Polizia Estatuaren zerbitzura dago, eta egungo Estatu moderno neoliberalak kapitalaren zerbitzura (Johnson 2014, 24). Hala, «zibilizazio» honen defentsan, poliziak mehatxu moduan irudikatuko du Mendebaldeko nazio-estatuaren oinarriak eta merkatu-jarduerak zalantzan jar ditzakeen oro: pobre arrazializatuak, ekintzaileak, asaldatzaileak, edota aurkari edo *outsider* kontsideratzen diren pertsonak, besteak beste (Nijjar 2022, 445).

Mehatxutzat hartzen diren heinean, kolektibo haiek etsaitzat irudikatuko ditu poliziak, etorkizuneko delituen iragarletzat hartuz krimenarekin zerikusirik ez duten haien eguneroko bizitzetako ezaugarriak —bizilekua, estatus ekonomikoa, ezaugarri kultural eta erlijiosoak, ekintzailatza politikoa, etab.— (Nijjar 2022, 452), eta, beraz, ezaugarri hauek partekatzen dituzten taldeak sekurtizatuz. Hortaz, segurtasun-beharraren eskaera zabalduko da jendartearen, eta sekurtizatutako kolektiboen aurkako poliziaren jardun errepresiboa ere justifikatuko da (Loader 2002, 134). Poliziaren egungo jarduna, beraz, selektiboa da, eta poliziaren izaera batzuen bizitzak babesteko besteenak jazartzean oinarritzen da, biopolitika eta nekropolitika txanpon beraren bi aldeak direla berretsiz.

Babestu beharreko bizitzak «kudeatu» egiten ditu poliziak, autobideetan, aireportuetan, ekitaldi jendetsuetan eta krimenarekin lotu ohi ez ditugun beste hainbat testuinguruetan ikus daitekeen moduan (Johnson 2014, 18). Babes hori bermatzeko, mehatxagarritzat identifikatzen den horren arriskuaren arabera jarduten du poliziak, hau da, predikzioan oinarritutako poliziagintza prebentiboaren bitartez⁹. Etorkizuneko gertaerak auresate du helburu eta, horretarako, datuetan oinarritutako metatutako ezagutza erabiltzen du. Informazio sistemen garapen teknologikoak ahalbidetu du giza baliabide gutxiagorekin pertsona kopuru handiagoetara zabaltzea zelatatze sistematikoa eta, ondorioz, hortik eratorritako datu bolumena biderkatu egin da. Arriskuari lotutako poliziagintza prediktiboak bazterketa soziala eta desberdinkeria sustatzen duela ohartarazi dute hainbatek (Bowling et al. 2019, 33). Halaber, iragarpen autobeteak eragin ditzake, eta eskumen zabalagoa ematen dio poliziari krimena eta desordena zer den eta zer ez definitzeko (ibid.).

Gainera, datu-baseak elikatzeko balio duen zelatatze sistematikoak ez du soilik funtzio hori betetzen; hau Foucaultek landutako panoptikoaren ideia bitartez azaldu daiteke. Izan ere, poliziaren zelatatzea ez da soilik, are gehiago, ez da, batez ere, informazioa biltzeko bide bat; uneoro zelatatuak izatearen sentsazioak ezarritako arauen baitan jokatzen eramango ditu pertsonak, beren baitako bulkadak auto-erreprimenez eta araua barneratuz. Gainera, zelatatzearen bidezko datu-bilketa gaitasuna biderkatu den moduan, iraultza teknologikoak zelatatua izatearen sentsazioa ere biderkatu du. Alde batetik, Byun-Chul Hanek adierazi bezala, baliabide digitalen bidez, gure egunerokoan norbere burua eta elkarren artean zelatatze dinamika txertatu ditugulako (Han 2022, 15), uneoro gure bizitzan irudi desiragarri bat islatuz. Horrek, ordea, elkarren arteko zelatatzea ez ezik, poliziaren beraren gaitasuna biderkatu du kameraren ugaritzearen eta interneten eskuragarri dagoen —eta guk geuk argitaratzen dugun— informazio kopuru handiaren ondorioz.

Azkenik, poliziaren alderdi zigortzaileak eztabaida piztu ohi du eta, aldi berean, hori da poliziaren bereizgarri nagusia: Estatuaren oinarrian dagoen indarraren erabilera legitimoaren monopolioa izatea (Seigel 2018, 10). Poliziaren indarkeria da nekropolitikaren baitako teknika gogorrena eta esplizituena. Jakina da poliziaren indarraren erabilerak kalte handia eragiten duela, bereziki mehatxagarritzat identifikatutako kolektiboen kasuan¹⁰. Ildo horretan, garrantzitsua da kalte hori murrizteko tresna moduan aurkezten diren arma ez-hilgarriak edo hilgarritasun gutxiagoko armak ere kritikotasunez aztertzea. Izan ere, ez dira poliziaren ohiko armak ordezkatzeko erabiltzen; horien erabilgarritasuna osatzeko baizik. Hala, arma ez hilgarrien eskuragarritasunak bere erabilera sustatzen du, ankerkeria handitzea eraginez (Rocher 2021, 23-24).

⁹ Poliziagintza prebentiboak delituaren aurrean zigorra eta errepresioaren bitartezko erantzuna gainditzea bilatzen du. Hau da, delitua gertatu aurretik, kaltea eragin aurretik, hau ekidin ahal izatea. Hala, poliziaren erantzun onbera balitz bezala imajinatzen da. Prebentzioa, ordea, ez da errepresioaren ordezkaria. Poliziaren-tzako baliabide berriak eskaintzen ditu, egiteko modu tradizionalagoei gehitu eta honen gaitasun sekuritarioa biderkatuz (García, Fernández-Bessa eta Mendiola 2020, 11).

¹⁰ Ikus Etxeberria, Beristain eta Pego, 2017; García, Torrecillas eta Maqueda, 2024; Iraola, 2024.

Gainera, poliziaren baitan indarkeriak duen boterea haratago doa. Indarkeriaren erabilera esplizituaz gain, Jeffrey T. Martin-ek «poliziagintzaren indar birtuala» kontzeptua erabili du honen potentzialtasunak dakarrena mahaigaineratzeko (Martin 2017, 101). Horren arabera, indarkeria egikaritzeko potentzialtasuna ere poliziaren tresna garrantzitsua da. Hau da, indarra erabili gabe, poliziak indar hori edozein momentutan erabili dezakeela jakiteak eta jendarteari jakinarazteak kontrol mekanismo moduan funtzionatzen du. Gainera, beharrezkoa balitz, indar birtuala indarkeria material bihur daiteke edozein mehatxuren aurrean.

Laburbilduz, pentsamendu foucaultarraren eta poliziaren arteko loturen azterketak eskaintzen dituen bi ekarpen nagusi jaso ditugu. Alde batetik, Foucaultek «polizia» kontzeptuaren inguruan egindako analisiak lagungarriak dira botere-mekanismoen funtzionamendu konplexuak ulertzeko eta hauek testuinguru sozio-ekonomiko eta historikoetan kokatzeko. Bestalde, boterearen inguruko hausnarketetan, Foucaultek zedarritutako kontzeptu nagusiek indarrean egoten jarraitzen dute, eta gakoak dira polizia modernoaren logikak aletu eta poliziaren zein honen jardunaren azterketa kritikoan sakontzeko.

7. ONDORIOAK

1960ko hamarkadaren amaieran, postestrukturalismoaren korrante filosofikoaren sorrerak jauzi bat ekarri zuen berekin Mendebaldeko pentsamoldean. Izan ere, Ilustrazioaren zenbait ideiarekiko haustura eragin zuen, baita dena zalantzan jartzera zuzendutako itaunketa nekaezinaren estrategia proposatu ere. Michel Foucaultek, egile postestrukturalisten lehen belaunaldikoa izanik, boterearen kontzeptua eraldatu egin zuen. Gaur egun badakigu boterea erlazionala, asimetrikoa, bi noranzkoko eta kapilarra dela, eta harreman guztietan aurki dezakegula, haren forma eta mekanismoak askotarikoak badira ere. Horien artean nagusitzen dira mekanismo legala, diziplina eta segurtasuna. Mekanismo horiek elkarri lotuta agertzen dira, nahiz eta testuinguruaren arabera horietako bat gailendu ohi den. Halaber, Foucaulten ekarpen nagusienetako bat honako ideia hau da: boterea, errepresiboa izateaz gain, produktiboa edo emankorra ere badela, botereak sortzen baititu diskurtsoa, ezagutza eta, azken finean, errealitatea bera ere. Horrekin batera, norbanakoa ez datorrenez erabat eratuta mundura, botereak subjektibitateak ere eratzen ditu, betiere erresistentziarako aukerak egonik.

Adibideen bitartez ikusi dugun moduan, Foucaulten ekarpena bikoitza da gizarteko fenomeno ezberdinetara hurbiltzeko. Alde batetik, haren lanek oinarritzko egitura eta instituzioen inguruko adibideak eskaintzen dituzten heinean, eskola eta polizia bezalako instituzioetara jotzea lagungarria da hausnarketa horiek barneratzeko. Bestetik, Foucaultek hezurmamitutako tresna kontzeptualik gabe, nekez helduko dira gure azterketak botereharremanen konplexutasuna eta nonahikotasuna behar bezala islatzera. Artikulu honetan bi noranzkoko izaera hori bildu dugu: alegia, Foucault ulertu hezkuntza eta poliziaren bitartez, eta hezkuntza eta polizia ulertu Foucaulten bitartez.

ERREFERENTZIAK

- Agger, Ben. 1991. «Critical Theory, Poststructuralism, Postmodernism: Their Sociological Relevance». *Annual Review of Sociology*, 17, 105-131. <https://doi.org/10.1146/annurev.so.17.080191.000541>
- Allen, Amy. 2002. «Power, Subjectivity, and Agency: Between Arendt and Foucault». *International Journal of Philosophical Studies*, 10(2), 131-149. <https://doi.org/10.1080/09672550210121432>
- Apple, Michael W. 1990. «On analyzing hegemony». Michael W. Apple. *Ideology and Curriculum*. Bigarren edizioa. New York/Londres: Routledge. (1-25).
- . 2003. «The State and the Politics of Knowledge». Michael W. Apple, Petter Aasen, Misook Kim Cho, Luis Armando Gandia, Anita Oliver, Youl-Kwan Sung, Hannah Tavares, eta Ting-Hong Wong. *The State and the Politics of Knowledge*. New York/Londres: RoutledgeFalmer. (1-24).
- Apple, Michael W. eta Christian-Smith, Linda K. 1991. «The Politics of the Textbook». Michael W. Apple eta Christian-Smith, Linda K. (arg.). *The Politics of the Textbook*. New York/Londres: Routledge. (1-21).
- Arendt, Hannah. 2023. *Las crisis de la República*. Editorial Trotta, S.A.
- Audureau, Jean-Pierre. 2012. «Sujeción y subjetivación: reflexiones acerca del uso de Foucault en educación». Alejandro Rendón Valencia (itzul.). *Revista Educación y Pedagogía*, 24(63-64), 137-153. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7658619>
- Ball, Stephen J. 2013. *Foucault, Power and Education*. New York eta Londres: Routledge.
- Bowling, Benjamin, Robert Reiner, eta James Sheptycki. 2019. *The politics of the police*. Oxford: Oxford University Press.
- Butin, Dan W. 2006. «Putting Foucault to Work in Educational Research» (Review article). *Journal of Philosophy of Education*, 40(3), 371-380. <https://doi.org/10.1111/j.1467-9752.2006.00514.x>
- Butler, Judith. 1990. *Gender Trouble. Feminism and the Subversion of Identity*. New York eta Londres: Routledge.
- . 2010. «Performative agency». *Journal of Cultural Economy*, 3(2), 147-161. <http://dx.doi.org/10.1080/17530350.2010.494117>
- Caldwell, Raymond. 2007. «Agency and Change: Re-evaluating Foucault's Legacy». *Organization*, 14(6), 769-791. <https://doi.org/10.1177/1350508407082262>

- Castro, Edgardo. 2019. «La noción de policía en los trabajos de Michel Foucault: objeto, límites, antinomias». *Anuario Colombiano de Historia Social y de la Cultura* 46 (2): 185-206,357. <https://doi.org/10.15446/achsc.v46n2.78218>
- Deacon, Roger. 2006. «Michel Foucault on education: a preliminary theoretical overview». *South African Journal of Education*, 26(2), 177-187. <https://files.eric.ed.gov/fulltext/EJ1150418.pdf>
- Dillet, Benoît. 2017. «What is Poststructuralism?». *Political Studies Review*, 15(4), 516-527. <https://doi.org/10.1177/1478929917712931>
- Dillon, Michael, eta Lobo-Guerrero, Luis. 2008. «Biopolitics of Security in the 21st Century: An Introduction». *Review of International Studies* 34 (2): 265-92. <https://doi.org/10.1017/S0260210508008024>
- Esteban Hilario, Kasely. 2015. «La teoría del poder de Foucault en el ámbito educativo». *Horizonte de la Ciencia*, 5(9), 127-133. <https://www.redalyc.org/journal/5709/570960874011/html/>
- Etxeberria, Francisco, Beristain, Carlos eta Pego, Laura. 2017. *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*. Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación del Gobierno Vasco. https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10779/INFORME_FINAL_-_investigacion_tortura_y_malos_tratos_18-12-2017.pdf
- Evans, Brad. 2010. «Foucault's Legacy: Security, War and Violence in the 21st Century». *Security Dialogue* 41 (4): 413-33. <https://doi.org/10.1177/0967010610374313>
- Fernández-Iriondo, J. 2024. «Nazionalismo subliminala(k) eta testuliburuak: alfabetatze nazional paraleloak Euskal Autonomia Erkidegoan». *Uztaro. Giza eta Gizarte-Zientzien Aldizkaria*, 130, 87-111. <https://doi.org/10.26876/uztaro.130.2024.5072>
- Foucault, Michel. 1977. *Power/knowledge: Selected interviews and other writings 1972-77*. Collin Gordon (arg.). New York: Pantheon Books.
- . 1979. *The History of Sexuality. Volume 1: An Introduction*. Robert Hurley (itzul.). New York: Pantheon Books.
- . 1988. «Technologies of the self». Luther H. Martin, Huck Gutman, eta Patrick H. Hutton (arg.). *Technologies of the self. A seminar with Michel Foucault*. Massachusetts: The University of Massachusetts Press.
- . 1988. «El sujeto y el poder». *Revista Mexicana de Sociología* 50 (3).

- . 1997. *The essential works of Foucault 1954-1984. Volume I. Ethics. Subjectivity and truth*. Paul Rabinow (arg.) eta Robert Hurley (itzul.). New York: The New Press.
- . 2006. *Seguridad, territorio, población*. Libk. Curso en Collège de France (1977-1978). Sección de Obras de Sociología. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- . 2023. *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*. Madrid: Siglo XXI de España Editores.

García, Ter, Torrecillas, Carmen, eta Maqueda, Adrián. 2024ko urriaren 30.^a. «162 personas murieron en actuaciones o bajo custodia policial en España entre 2015 y 2022». *El Salto*. <https://www.elsaltodiario.com/violencia-policial/al-menos-162-personas-murieron-actuaciones-custodia-policial-espana-2015-2022>

García, Sergio, eta Ávila, Débora. 2015. *Enclaves de riesgo: Gobierno neoliberal, desigualdad y control social*. Madrid: Traficantes de Sueños.

García, Sergio, Fernández-Bessa, Cristina eta Mendiola, Ignacio. 2020. «El giro preventivo de lo policial. Presentación». *Crítica penal y poder* 19: 1-19.

Glynos, Jason, eta Howarth, David. 2008. «Structure, Agency and Power in Political Analysis: Beyond Contextualised Self-Interpretations». *Political Studies Review*, 6, 155-169. <https://doi.org/10.1111/j.1478-9302.2008.00149.x>

Gordon, Neve. 1999. «Foucault's Subject: An Ontological Reading». *Polity*, 31(3), 395-414. <https://doi.org/10.2307/3235247>

Gore, Jennifer M. 2000. «Disciplinar los cuerpos: sobre la continuidad de las relaciones de poder en pedagogía». Thomas S. Popkewitz eta Marie Brennan (konp.). *El desafío de Foucault. Discurso, conocimiento y poder en la educación*. Bartzelona: Ediciones Pomares-Corredor. (228-252).

Guille, Gustavo. 2021. «Dislocación y decisión. Hacia una teoría deconstructiva del sujeto político en el trabajo de Ernesto Laclau». *Ideas y Valores*, 70(177), 45-65. <https://doi.org/10.15446/ideasyvalores.v70n177.68934>

Han, Byun-Chul. 2022. *Infocracia. La digitalización y la crisis de la democracia*. Madrid: Taurus.

Hanssen, Beatrice. 2004. «11-Critical Theory and poststructuralism: Habermas and Foucault». Fred Rush (arg.). *The Cambridge Companion to Critical Theory*. Cambridge University Press. (280-309). <https://doi.org/10.1017/ccol0521816602.012>

Harcourt, Bernard E. 2007. «An Answer to the Question: «What is Poststructuralism?»». (University of Chicago Public Law and Legal Theory Working Paper No. 156). <https://>

chicagounbound.uchicago.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1029&context=public_law_and_legal_theory

Hobbes, Thomas. 2019. *Leviatán*. Editorial Verbum: Madril.

Höhne, Thomas. 2003. *Schulbuchwissen. Umrisse einer Wissens- und Medientheorie des Schulbuches*. Frankfurt am Main: Johann Wolfgang Goethe-Universität.

Howarth, David. 1997. «Complexities of identity/difference: Black Consciousness ideology in South Africa». *Journal of Political Ideologies*, 2(1), 51-78. <https://doi.org/10.1080/13569319708420750>

Imaz Bengoetxea, Jose Inazio. 2012. *Hezkuntzaren soziologia*. Donostia: UPV/EHU.

Iraola, Arantxa. 2024ko martxoaren 20.^a. «Familia batek salatu du eldarnioak jota zegoen gizon bat ertzainek bortxaz tratatu zutela, eta hil egin zela». *Berria*. https://www.berria.eus/euskal-herria/familia-batek-salatu-du-eldarnioak-jota-zegoen-gizon-bat-ertzainek-bortxaz-tratatu-zutela-eta-hil-egin-zela_2122531_102.html

Jefferson, Noah R. eta Smith-Peterson, Margaret. 2021. «The Physics of Power: Stories of Panopticism at Two Levels of the School System». *Theory, Research, and Action in Urban Education*, 6(1). <https://traue.commons.gc.cuny.edu/the-physics-of-power-stories-of-panopticism-at-two-levels-of-the-school-system/>

Jiménez Villar, Beltrán. 2020. «Han, Lector De Foucault*». *Eidos*, zenb. 33, 293-317.

Johnson, Andrew. 2014. «Foucault: Critical Theory of the Police in a Neoliberal Age». *Theoria* 61 (141): 5-29. <https://doi.org/10.3167/th.2014.6114102>

Khan, Tauhid Hossain, eta MacEachen, Ellen. 2021. «Foucauldian Discourse Analysis: Moving Beyond a Social Constructionist Analytic». *International Journal of Qualitative Methods*, 20, 1-9. <https://doi.org/10.1177/16094069211018009>

Lemke, Thomas. 2020. «3. The Risks of Security: Liberalism, Biopolitics, and Fear». In *The Government of Life*, -(e)k argitaratua Vanessa Lemm eta Miguel Vatter, 59-74. Fordham University Press. <https://doi.org/10.1515/9780823256006-006>.

Loader, Ian. 2002. «Policing, securitization and democratization in Europe». In *Crime and Security*. Routledge.

Maquiavelo, Nicolás. 2014. *El Príncipe*. Editorial Biblioteca Nueva: Madril.

Marsh, David. 2017. «Meta-Theoretical Issues». Vivien Lowndes, David Marsh, eta Gerry Stoker (arg.). *Theory and Methods in Political Science*. Laugarren edizioa. Londres: Palgrave. (199-218).

- Marshall, James D. (1989). «Foucault and Education ». *Australian Journal of Education*, 33(2), 99-113. <https://doi.org/10.1177/168781408903300201>
- Martin, Jeffrey T. 2017. «Affect: The Virtual Force of Policing (Taiwan)». In *Writing the World of Policing: The Difference Ethnography Makes*. University of Chicago Press.
- Martin, Rux. 1988. «Truth, power, self: An interview with Michel Foucault. October 25, 1982». Luther H. Martin, Huck Gutman, eta Patrick H. Hutton (arg.). *Technologies of the self. A seminar with Michel Foucault*. Massachusetts: The University of Massachusetts Press.
- Martínez, Glenabah. 2006. ««In My History Classes They Always Turn Things Around, the Opposite Way»: Indigenous Youth Opposition to Cultural Domination in an Urban High School». Michael W. Apple, eta Kristen L. Buras (arg.). *The Subaltern Speak. Curriculum, power, and educational struggles*. New York/Londres: Routledge. (121-140).
- Mbembe, Achille. 2011. *Necropolítica seguido de Sobre el gobierno privado indirecto*. Espainia: Melusina.
- McLeod, Julie. 2005. «Feminists re-reading Bourdieu. Old debates and new questions about gender habitus and gender change». *Theory and Research in Education*, 3(1), 11-30. <https://doi.org/10.1177/1477878505049832>
- Montbrun, Alberto. 2010. «Notas para una revisión crítica del concepto de «poder»». *Polis (Santiago)* 9 (25): 367-89. <https://doi.org/10.4067/S0718-65682010000100022>.
- Nentwich, Julia C., Ozbilgin, Mustafa F., eta Tatli, Ahu. 2014. «Change agency as performance and embeddedness: Exploring the possibilities and limits of Butler and Bourdieu». *Culture and Organization*, 21(3), 235-250. <http://dx.doi.org/10.1080/14759551.2013.851080>
- Nijjar, Jasbinder S. 2022. «Racial warfare and the biopolitics of policing». *Social Identities* 28 (4): 441-57. <https://doi.org/10.1080/13504630.2022.2056438>.
- Rae, Gavin. 2020. *Poststructuralist Agency: The Subject in Twentieth-Century Theory*. Edinburgo: Edinburgh University Press.
- Ritzer, George, eta Stepnisky, Jeffrey. 2018. *Sociological Theory*. Hamargarren edizioa. Los Angeles: SAGE.
- Rocher, Paul. 2021. *Gasear, mutilar, someter. La política de las armas no letales*. Iruñea: Katakarak.
- Roth, Jeffrey. 1992. «Of What Help Is He? A Review of *Foucault and Education*». *American Educational Research Journal*, 29(4), 683-694. <https://doi.org/10.3102/00028312029004683>

- Santiago, Alfredo Sánchez. 2019. «La gubernamentalidad como poder a distancia: Foucault y la crisis de las disciplinas». *Daimon Revista Internacional de Filosofía*, zenb. 76 (urtarrila), 155-70. <https://doi.org/10.6018/daimon/281801>.
- Schenoni, Luis Leandro. 2007. «El concepto de lo político en Nicolás Maquiavelo». *Andamios* 4 (7): 207-26.
- Schmitt, Carl. 2009. *Teología política*. Editorial Trotta: Madril.
- Schrag, Francis. 1999. «Why Foucault now?». *Journal of Curriculum Studies*, 31(4), 375-383. <https://doi.org/10.1080/002202799183043>
- Seigel, Micol. 2018. *Violence work: State power and the limits of police*. Durham & London: Duke University Press.
- Sleeter, Christine E., eta Grant, Carl A. 1991. «Race, Class, Gender, and Disability in Current Textbooks». Michael W. Apple eta Christian-Smith, Linda K. (arg.). *The Politics of the Textbook*. New York/Londres: Routledge. (78-110).
- Torres Santomé, Jurjo. 2009. «The Trojan Horse of Curricular Contents» (Eduardo Cavieres itzul.). Michael W. Apple, Wayne Au eta Luis Armando Gandin (arg.). *The Routledge International Handbook of Critical Education*. New York/Londres: Routledge. (64-80).
- Tröhler, Daniel. 2020. «National literacies, or modern education and the art of fabricating national minds». *Journal of Curriculum Studies*, 52(5), 620-663. <https://doi.org/10.1080/00220272.2020.1786727>
- Wacquant, Loïc. 2010. *Castigar a los pobres*. Gedisa editorial.
- Wall, Tyler. 2020. «The Police Invention of Humanity: Notes on the «Thin Blue Line»». *Crime, Media, Culture* 16 (3): 319-36. <https://doi.org/10.1177/1741659019873757>
- Wenman, Mark. 2017. «Poststructuralism». Vivien Lowndes, David Marsh, eta Gerry Stoker (arg.). *Theory and Methods in Political Science*. Laugarren edizioa. Londres: Palgrave. (125-141).
- Wichum, Ricky. 2013. «Security as Dispositif: Michel Foucault in the Field of Security». *Foucault Studies*, urtarrila, 164-71. <https://doi.org/10.22439/fs.v0i15.3996>